

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektua aurrera eramateko, hainbat hornitzaile- eta bazkide-sare zehaztu behar ditugu.

Alde batetik, giltzarrapoaren hornitzailearekin akordio bat egin dugu ezinbesteko produktua lortzeko eta gure erara moldatzeko.

Bestalde, Correos enpresarekin hitz egin dugu bidalketak egin ahal izateko eta enpresa honek bezeroen etxeetara eramango ditu.



Gainera, gure enpresaren funtsezko itunak gure artekoak izango dira; bakoitzak funtsezko baliabide bat jarriko du, hau da, Mainerrek bere sormena ipiniko du proiektua gauzatzeko eta horretan hobekuntzak egin ahal izateko, Garoak aldiz, salmentarako arloan arituko da bezeroekin tratatzeko dituen erraztasunak baliatuko baititugu. Cristinaren kasuan, webgunea diseinatzen arituko da bere informatikako ezagutzak baliatuz. Azkenik, Miriamek etxean dauzkan eguzki plaketatik argindarra hartuko dugu, bere garajea erabiliko dugu lantegi bezala eta gainera, gure antolaketa planak egiten lagunduko digu bere abileziak direla-eta.

